



## PROMETEO ETA NI

Arnas estuka  
itolarrian  
taupadak  
—bihotz erotuarenak—  
sentituz,  
kuzkurturik  
giharreak,  
ilunpea bidaiarako  
laguntzat  
harturik,  
suaren bila  
hindoan.

Pausoka, metroak astiro irabaziz, hurbil hen-  
kusan xedea  
jainkogizona  
gizonjainkoa  
Babiloniako paradisu zaharrear  
—desaberriko zitara sahatsetatik  
zintzilikatu aurretik—  
amestutako gizonak jainkotzearen sagar gorria,  
sua.

Pentsamendu hori daramak,  
barne espazio horretan  
murgildu haiz...  
eta ez duk  
—ezpainak ahanzturako  
tabako kea bezala—  
arranoaren hegada somatu.  
Suminez beteriko begi  
ikustezinen  
geziak behin eta berriro hire  
bizkarrean  
iltzatu dituk eta josi,  
—mailu urrelariaren zauri!—

Edo, agian, oker ote niagok?  
Eta gaubelari dagion zelatariaren  
adorea eta eramanpena  
hireak egin  
eta  
bizi-hil, hil-bizi  
jokuaren arauak  
jarraitzearen lege gisa onartu  
badituk?



Hareeta kixkalgarrietako beduino,  
mazel ahigarrietako ibiltari,  
duna malkartsuari  
lotuta  
hago.

Jakitunen irribarreak  
zulatu dizkik  
—soro ironikoetako golde—  
hire aurpegiko haragiak.

Etzegok higan  
damuaren dolurik  
bentzutuaren arrabiazko  
malkorik

Etzegok higan  
kexuaren listurik  
ahotik zintzilik.

Jokatu duenaren harrokeriaz  
begiratzen duk arranoa  
—goizalba oro  
borreroaren eguzki—  
eta horregatik  
egon nahi diat  
sarraski orduan  
nik ere hirekin.

Hire sofrimenduaren orro,  
hire jainkotasun irritsaren irrits,  
hire des-haragiaren haragi.

## II. SISIFO ETA NI

Maldan gora abiatzen haiz,  
bizkarrean iltzaturik  
harriaren zama,

basurde

lustralaren antza  
lurraren kontra  
aurpegia,  
irristaka asetasunaren

ispilua

urra dezakeen izerdi  
tanta,  
esfortzua gorputzean zitzelaturik,  
sugearen eta ziklopearen  
sirenaren eta Ulisesen

arragoa.

Mantxoak dituk, mantxo eta neketsuak  
hire pausoak,  
denboratasunaren usteltze  
geldoa;

hire belaunek

zama

sentitzen diate,  
mingarri eta gozoa.  
Gora, beti goşa,

itzulera

etengabea, bizkarrean  
pixua.

Irribarrez hoa,  
begininietan kontraesanaren

teologia:

harriaren inertziaz lurrerantz,  
hire izpirituaren bulkadak  
hegaz,

hegaz.

Eta esaidak  
zergatik jotzen duan  
lurra haina airea

errotzat.



Bizitzaren egiatasuna sentitzen baituk,  
beste inork ez bezala:  
xamurra dela harria  
gustokoa zigorra  
eta  
arina zama.

Hire gogoetako lakuaren  
ia konturatu gabe heldu haiz  
azken arrastiriko ertzaren  
erpinera.

Hurbil, hurbil duk

zentuaren helmugaren

miketza

zisne,

bandera,

ikur

Bat batean, bizkarretik behera  
egin dik harriak  
— nahigabe ala, auskalo,  
nahita —  
aurreko mila alditan  
bezala.

Eta hutsaldiaren tangoak estutu dik  
hire

gorputza  
eta maldan behera abiatu haiz  
— hastapenetako ertzaren,  
hire bizitza existentzia egiten duen  
zamaren bila —

osteratza.

Absurdoaren  
mendia.

